

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

61 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**EH Bildu eta
Elkarrekin Podemos
batera joatearen alde!**

**Autodeterminazio
eskubidearen eta
sozialismoaren
defentsan!**

I-25

**Hauteskundeak Euskal
Autonomia Erkidegoan**

I-25: Hauteskundeak Euskal Autonomia Erkidegoan

**EH Bildu eta Elkarrekin Podemos batera joatearen alde!
Autodeterminazio eskubidearen eta sozialismoaren defentsan!**



Parlamentuan Rajoyen inbestiduraren ezezkoak berriz ere agerian utzi ditu klase dominatzaileak etapa politiko berri honetan dituen zailtasun ikaragarriak. Ez daukate hain erraz behar adina babes eta egonkortasun edukiko lukeen gobernu berri bat osatzeko eta honekin beste murrizketa eta eskubide sozialen aurkako erasoaldi bat aurrera eramateko. Albert Riverak PP babestea ez da nahikoa berriz hauteskontzietara itzultzea saiasteko.

Burgesiaren estrategia

PPren eta Csren arteko itunak mundu guztiak zekiena egiaztatu besterik ez du egin: Albert Riveraren alderdia Ibex 35aren “txiringito” politiko bat besterik ez dela eta horren helburua politika prokapitalistak aplikatzen jarraitzea dela, izan PPren edo PSOEn zuzendaritzaren esku-tik. Funtsean dagoen auzia ordea ez da hori, esperotakoa baitzen, baizik

eta aritmetika parlamentarioan kontuak ez direla ateratzen, momentuz behintzat, Rajoyek eta PPei gobernua osatu dezaten. Eta hemen sartzen da sozialdemokraziaren egoera tamalgarrria, kontraesan mordotan harrapatua, konpontzetik oso urrun dagoen krisi batean hondoratzeke zorian.

Pedro Sanchezen alderdiak golpe gogorra jaso zuen E-26an, nahiz eta inkestek are golpe handiagoa aurre-saten zuten zentsazioa lasaitasun behartu batekoa izan zen. Orain, ezin dituzte hain erraz ukatu kanpainan jaurtiriko esloganak eta Rajoyen gobernua azkar eratzea bideratu. Baina legegintzako lehen unetik hainbeste ahultasun ez erakutsi nahi izateak, ez du esan nahi azkenean ez direnik amore ematera beharturik egongo.

Pedro Sanchezek eta aparatu sozialistak hain garbi edukiko balute ezin zaiola PPri gobernatzen utzi, ez ziren arituko, orain dela hilabete batzuk bezala, Ciudadanosekin itunak

egiten. E-26ren ondoren ere, ezkerreko gehiengo gobernu bat osatzeko jarrerara irmoa agertuko lukete. Baina ez da horrelako ezer gertatu. PSOEko buruzagiek Elkarrekin Podemosen aurkako erasoak areagotu dituzte eta, Parlamentuan Rajoy atzera bota zenean, bakarrik esan dute Csekin eta Elkarrekin Podemosekin hitz egingo dutela gehiengo bat osatzen saiatzeko. Baina, ez al zuen bada bide honek porrot egin maiatzean? Ciudadanosek eta ezkerreko konfluentziek sostengaturiko gobernu batekin berriz tematzearabateko iruzurra da, aparatu sozialista burgesiaren eskuetan jaurtirik dagoela erakusten duen aitzakia baino ez.

Klase dominatzailea urduritzen ari da eskuetatik alde egin dakioken eta, teorikoki behintzat, hirugarren hauteskunde batzuetarantz joan daitekeen egoera baten aurrean. Horregatik bere esku dagoen guztia egiten saiatuko da hori ez gertatzeko. Lehe-

nik eta behin, bere bozeramaile media-tikoak aktibatzen ari da Alderdi Popu-larra PSOErrentzako konpentsazioen bat emate aldera biguntzeko xedez, ho-rrela hauen abstentzioa errazteko. So-ria ministro ohia Banku Mundialeko or-dezkari espainiar gisa izendatzea oso kritikatu izan da eskuineko komuni-kabideen aldetik, eta azkenean atze-ra egin behar izan du. Oso zaila zen irensteko pilula hori, hain zuzen ere Albert Riverarekin itun bat egin eta egun gutxitara, ustez “berregite poli-tikoa” eta ustelkeriaren aurkako bo-rroka aurkezten zituztenean bertako puntu garrantzitsu gisa.

Gauzak dauden bezala egonik, PPren gainean Rajoy ez den beste hautagai alternatibo bat bilatzeko presioa datozen egunetan areagotu egingo da. Hori da Riverak jaurti duen ideia eta *El Pais* egunkariak aktibo-ki babesten duena; baita Felipe Gon-zalezen eta beste sozialista batzuen eskakizuna, hau da, hirugarren hau-teskunde ez entzun nahi ez du-tenena. Noski, soluzio honek gauzak erraztuko litzieke baina baldintza ho-ri ez da *sine qua non*. Jada PSOEko tokiko liderren gehiengo bat oharta-razten ari da Rajoyrenganako ezezkoa irailaren 2ra arte bakarrik zela balio-garria (inbestidurari bigarren ezezkoa esan zitzaion eguna); momentu horre-tatik aurrera, asko entzungo da urri hasierarako Komite Federal bat egi-teko eta egoera hotzean “baloratzeko” eskakizuna, hau da, PPren gobernu-a erraztekoa, horrela hauteskunde be-rriak saihestuz.

Azkenean hauteskunde berriak deitzeko kasua emango balitz ere ez litzake eszenatokia aldatuko. Alde-rantziz, egoera hori gertatuz gero, PSOEko krisia sakondu egingo da, apa-ratu sozialistak zaila edukiko bailuke klase dominatzailearen —estatu es-painiarrekoaren nahiz kanpokoaren— eta bertako tokiko buruen presio ba-teratuari aurre egiten.

Elkarrekin Podemosek ardura ikaragarria du egungo impasseare-kin hausteko. Nola? Kretinismo par-lamentarioa alde batera utzita eta bere berezko indarra denean oina-rrituz, kaleetako borrokan. PPren eta Csen akordioa azkenean gober-nua eratuz amaitzen bada, ahulena eta ezegonkorrena izanik ere, aurre-ra eramango duen agenda oso argi dago: berriro ere murrizketa basati mordo bat egitea (10.000 milioi euro,



EBk agindu duen bezala), zuzenean osasungintza eta hezkuntza publi-koari, pentsioei, langabezia sorospe-nari eta eskubide sozialen osotasuna-ri eragingo diotenak.

I-25eko hauteskundeak eta Otegiren inhabilitazioa

Datorren irailaren 25eko EAEko hau-teskundeak euskal burgesiarentzat ere egoera oso konplikatu baten mar-koan emango dira. Euskadin Elkarre-kin Podemosen igoerak arduraturik dauka PNV, eta asko gainera. Bes-talde, Arnaldo Otegi EH Bilduko le-hendakaritzarako hautagai izate-ko inhabilitatzea, era berean, ezker abertzalea ahultzeko beste saiakera bat besterik ez da. PP, PNV eta PSE-PSOE beldur dira Elkarrekin Pode-mosek eta EH Bilduk beren indarrak bateratzearekin eta EAEn trantsizio-tik eman ez den ezkerreko birake-ta bat materializatzeko aukerarekin.

Arnaldo Otegi bidegabeki atxilo-tua izan zen, hain justu ETAk armak uztea bideratu zuen prozesua bultza-tzen ari zen momentuan. Bere kon-dena osorik bete du, baina ez dirudi hori nahikoa denik. Orain, aske irten orduko zigor gehigarri bat ezarritz, Le-hendakari gisa aurkezteko inhabilitu dute. Alderdi Popularrak eta Estatu aparatuek agertzen duten amorru horrek argi erakusten du zer nolakoa den eskuinaren hipokresia benetan: ustelkeriaz lepo daudenentzat sariak, Soria ministroaren kasuan esaterako, eta etenik gabeko erasoak arerioen-

tzat. Honakoa errepresio ekintza bat baino gehiago ere bada. Burgesia es-painiarraren beldurra ere erakusten baitu EAEn irekitzen den eszenato-kian, ezkerreko biraketa bat supo-satu dezakeena, jada hauteskunde orokorrek eta munizipalek aurrean zuten bezala.

Joan den legealdi honetan, PNVek, euskal kamaran gutxiengoko posi-zio bat eduki arren —27 diputatu 75etik—, modu erosoan gobernatu ahal izan du. Oposizio indar guz-tiak nahi izan dute berarekin itun-du, nahiz eta motibo ezberdinenga-tik eta batzuetan kontraesankorren-gatik izan. Herri Legea itundu du EH Bildurekin, zuzendaritza aber-tzalearen akats larria, LABek berak ere kritikatu duena; Euskaltelen eta Kutxabanken pribatizazioa PP eta PSErekin, eta azken honekin baita jaurlaritzako aurrekontuak nahiz EH Bilduren inizatiba posibleen blokeoa ere. Egoera honek PNVri inoiz izan duena baino botere instituzional han-diagoa eskuratzea baimendu dio Eus-ko Jaurlaritzaren agintean: probin-tzietako hiru diputazioen eta EAEko hiru hiriburuen kontrola. Posizio ho-rietako gehienak ordea PNVek ez zi-tuen hauteskundeetan irabazi.

Modu berean, PNVek mota guztie-tako keinuak egin dizkio burgesia es-painiarrari egonkortasun instituzio-nala bermatuz eta uko eginez Cata-lunyako frentearen antzeko zerbait irekitzeaz. Baina horri erantzunez, PPei auzitegiara eraman ditu PN-Vek ezker abertzalearen zuzendaritza-



ri egin nahi zizkion kontzesioen neurri guztiak, eta gainera uko egin dio Gernikako Estatutuan zintzilik dauden materiak emateari, gartzela politika esaterako, ez entzunarena eginez euskal presoak Euskal Herriko kartzelatara gerturatzeako eskakizunari.

Nazionalismo espāñolistak eskubide demokratikoei egiten dizkien eraso hauek guztiek, PNVri itxura “aurre-rakoia” hartzea baimendu die, praktikan politika liberalak aplikatzen egon direnean arlo ekonomikoan eta errepresiboak arlo politikoan. Gogorra ekarri besterik ez, Ertzaintzak zeinen modu basatian erreprimitu zituen atxiloketen aurka Gasteizko Herri Harresian bildurik zeuden gazteak aurreko urteko maiatzaren 17an.

PNVrekin akordioak? Balantzea argia da

Ezker Abertzalearen zuzendaritza hauteskunde hauetara itun sozial bat eskainiz aurkezten da EH Bilduren, PNVren, Elkarrekin Podemosen eta gehiengo sindikalaren (ELA eta LAB) artean, “harresi bat eraikitze” murrizketa sozialen aurrean eta aurrera egiteko erabakitze eskubidean eta gatazkaren konponbidean. Bere alde-tik, Elkarrekin Podemosek ere “Euskadirengatik” esloganarekin ez da bide hori itxi. Baina ia lau hamarkadetakako esperientziak erakusten du PNV ez dela konbentzitzeko laguna, azpiratu beharreko klaseko etsaia baizik, ezkerrek benetan aldaketa ekarri nahi badu behintzat.

Errealitatea burugorria da: itunak egitea PNVrekin, hau da, euskal

eskuinarekin, austeritateko politikak luzatzeko beste ezertarako ez du balio; murrizketa sozialak eta gure eskubide demokratikoen ukapena indartzeko. Azken urteetan areagotuz doa hau eta hor daude datuak. Pobrezia modu oso gogorrean handitu da: 248.000 dira jada bazterketa sozialean dauden pertsonak (2008an baino %41 gehiago) eta, hori horrela izanik ere, PNVek DSBEa (diru-sarrerak bermatzeko errenta) %7an murriztu du eta familia kontziliazioko laguntzak beste %7an. 2016ko aurrekontuetan 92,7 milioi euro murriztu dira osasungintza publikoan 2009koarekin alderatuz, eta hezkuntzan 221,7 milioi gutxiago dira denbora tarte berean. Langile klasearen soldadak 20 urte baino gehiago egin dutenean atzera, Kutxabaneko presidentek 2.000 euro irabazten ditu egunean.

PNVek LOMCE aplikatu du, hezkuntzako kontraerreforma frankista, ahal duen guztian hezkuntza pribatu-kontzertatua indartu du, ehunka irakasle kaleratu ditu, eta ikusi besterik ez dago lan erreforma aurrera eramane duen grina, sektore publikoko enpleguaren prekarizaioa zabaltzea, eta zenbat ERE babestu dituen, milaka lanpostu suntsituz. PNVek, PSE-ren, PPren eta Confesbasken euskal patronalaren babesarekin “ongizate estatua” suntsitu du, gastu eta zerbitzu publikoak murriztuz, Euskaltel bezalako enpresa publikoak pribatizatuz, Kutxabank bezalako sektore estrategikoak liberalizatuz eta horien kontrola galduz, Ikerkuntza eta Garapenerako EBko batz bestea baino %5a gutxiago bideratuz.

PNVrekin egitea aipatzen den elkarriketa sozialak modu bakarrean amaitu dezake: ezkerre euskal eskuinaren menpe ezarriz, hain zuzen ere PNV Gasteizko gobernutik kanporatzea posible den une batean. Zerk bultzatuko luke PNV I-25aren ostean EH Bilduren, Elkarrekin Podemosen eta gehiengo sindikalaren alboan murrizketa sozialen aurka borrokatzea? Aldiz, EAEn I-25ren ondoren Ezkerreko Fronte bat osatuko balitz, PNVek ez luke zalantzarik egingo Gasteizen eta Madriden PPrekin egiteko ituna, iraganen egin duen bezala, bere klaseko interesa defendatzeko.

PNV garaitu, behar dugun aldaketa ekarri

Ezker abertzaleak azken sei hilabeteen mobilizazio sozialen egutegi indartsu bat eramane du aurrera: emakumeek jasaten dituzten tratutxarren aurka, gazteriaren errepre-sioaren aurka, lan prekarietatearen aurka, presoek eskubideen eta errefuxiatuen itzulerean alde, ekologiaren defentsan... Kalean mobilizatzea da modu bakarra indarrak biltzeko eta langile klaseak eta gazteriak behar dugun aldaketa eragiteko.

Euskal Herrian Ezker Iraultzailean gauden langile, sindikalista eta gazteak uste dugu EH Bilduren aldeko botoak, Elkarrekin Podemosenak bezala, benetako Ezkerreko Fronte bat antolatzeke balio behar duela, PNV eta PP bozketan nahiz kaleetan garaitzeko. Ezkerreko Fronte honek neurri sozialista indartsuak hartu beharko lituzke, langabeziaren, po-breziaren eta gehiagora doan bazterkeriaren aurka gastu soziala handituz, osasungintza eta hezkuntza publikoa defendatuz. EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen arteko ezkerreko fronte batek, programa hau autodeterminazio eskubidearen defentsa kontsekuente batekin bateratu behar du. Garrantzitsua da Katalunian aspi-razio hau Convergenciako burgesia nazionalistaren interesen menpera ezartzeak ekarri dituen ondorioetatik ikasgai guztiak ateratzea. EAEn, Estatu espainiarrean, Europan eta mundu mailan bezala, internazionalismoaren bandera altxatzeko ordua da, langile klasearen eta gazteriaren batasunarena, muga nazionalen gainetik, gizartearen eraldaketa sozialista baten alde borrokatuz.

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Aukera hau ez zen inolaz ere posible zen bakarra. Syrizaren gobernu lan-gileengan eta gazteriarengan oinarritu izan balitz, Greziak bizi duen hondamendiari amaiera emateko neurri eraginkorrak planteatuz, banka eta monopolio handiak nazionalizatuz, eta gizartearen aberastasuna herri greziarraren kontrolpe demokratikoan ezarritz, adibide honek ikaragarriko elkartasuna sorraraziko zukeen Europan eta mundu osoan.

Euskal Herria eta sozialismoa


Kapitalismoak ez du funtzionatzen zentzu komunaren, logikaren edo gehiengoaren onuraren arabera. Enpresari eta bankari handien etekinak puzteko funtzionatzen du. Garbi dago euskal burgesiak eta bere alderdi nagusiak, EAJk, kapitalista espainiarrekin, frantziarrekin eta hauen ordezkari politikoekin modu estu batean kolaboratu dutela: alde batetik, zapalkuntza handitzeko eta hobetzeko balio zuten mota guztietako lege eta neurriak martxan jartzen, langileei ahal den gainbalio kantitate handiena ateratzeko helburuarekin, eta beste aldetik, eskubide demokratikoen errepresioa antolatzen. Burgesia espainiarrarekin eta merkatu espainiarrarekin dituzten loturak eta negozioak Aberri Egunean egiten dituzten adierazpenak baino askoz garrrantzitsuagoak dira.

Euskal Herriaren eskubide demokratikoen aldeko borrokan euskal burgesia aliatu bat denaren ideia erabat okerra da. Euskal Herriaren askapen nazionala zapalduen askapen sozialaren aldeko borrokaren zati da. Biak banatzea akats handia da. Euskal Herriko langileen eta gazteriaren sozialismoaren aldeko borroka iraultzaileak bakarrik, Estatu espainiarrereko eta frantziarrereko eta Europa osoko klaseko anai-arrebekin borrokan elkartuta, izango da posible autodeterminazio eskubidea eta lurralde batasuna errealitate bihurtzea. Eta borroka horrek klaseko independentziaren programa sozialista eskatzen du, ez burgesiarekin kolaboratuko duena.

Erakunde internazional iraultzailea

Euskal Herriaren benetako demokraziarik ez da izango justizia sozialik eta berdintasunik gabe. Baina horre-

Antolatu zaitez EZKER IRAULTZAILEAn!



lako gizarte bat —sozialista eta demokratikoa— ez da zerutik eroriko, antolakuntzaren eta borrokaren ondorio izango da. Horregatik, eta azken urteetako esperientzian oinarrituz, 2006an EUSKAL HERRIA SOZIALISTA aldizkaria sortu genuen langile eta gazteok EZKER IRAULTZAILEA erakunde internazionalera gehitzea erabaki dugu.

Kapitalistak garaitzea nahi badugu biztanleriaren mobilizazio masiboa behar dugu, eta borroka hau antolakuntza kontzientean bihurtu programa antikapitalista, sozialista eta internazionalista defendatuz.

- 1.200 euroko gutxieneko soldata. 1.200 euroko langabezia sorsopen mugagabea lanpostu bat aurkitu arte. 35 orduko lan astea soldata murrizketarik gabe. Erretiroa 60 urterekin, errelebo kontratuekin.

- Etxegabetzeak lege debekatzeta. Etxebizitza publikoen parkea alokairu sozialarekin, bankuen eskuetan dauden etxe hutsak desjabetuz.

- Hezkuntza publikoa, doakoa eta euskalduna. LOMCE eta 3+2 indargabetzea. Gure hizkuntza defendatzeko eta zabaltzeko, Euskal Herri osoan hezkuntza publikoko hizkuntza eramailea euskaraz izatea.

- Osasun publiko duina, doakoa eta unibertsal denentzat.

- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekin: kuporik eta kontzentrazio esparrurik ez. Atzerri Legea eta Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak ezabatzea.

- Bankaren, sistema finantzarioaren eta enpresa handien nazionalizazioa, langileen eta beren erakundearen kontrolpean, ekonomia biztanleriaren onurarako demokratikoki antolatzea.

- Preso politikoaren berehalako gerturatzeta Euskal Herrira eta dispartzio politikaren amaiera. Amnistia preso politikoentzat.

- Autodeterminazio eskubidea Euskal Herriarentzat eta nazio zapalduentzat. Europako Federazio Sozialistaren markoan, Euskal Herria sozialista.

EZKER IRAULTZAILEA erakunde internazionalak borroka egingo du Euskal Herrian benetako gizarte demokratiko baterantz joateko. Bizirau-penagatik eguneroko borrokatik askatuta eta ekoizteko baliabideak gizartearen gehiengoaren kontrolpean jarrita, zapalkuntza nazionaletik eta errepresiotik askatuta, langileok eta gure familiek aukera izango genuke gizarteko erabaki politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletan kontzienteki parte hartzeko. Gizateriaren sormen guztia erabiliko lukeen alternatiba horren izena sozialismoa da, eta bera da Euskal Herriaren benetako askatasuna lortu dezakeena.

PPk dekretuz eta ezkutuan onartu ditu errebalida frankistak

Borrokara itzuli erasoak gelditzeko!



IKASLE SINDIKATUA

Udaren erdian, uztailaren 29an, Mariano Rajoyren Ministro Kontseiluak dekretuz onartu du kurtso honetan bertan sartuko direla indarrean DBH eta Batxilergoko errebalida frankistak. Egun diru publikoaren kontura erregeen moduan bizi den Jose Ignacio Wertek prestatu zituen errebalida hauen helburua oso argia da: hezkuntza sistematik ahalik eta azkarren milaka gazte bidaltzea, horietako askok behin betikoz ikasketak uztera behar-

tuz bigarren hezkuntzako titulurik ere eduki gabe.

Honakoa hezkuntza eskubideari azken hamarkadetan egin zaion erasorik handienetakoa da. Azterketa horiek heziketa kalitatea hobetuko duten argumentu faltsua erabiliz, PPren asmoa benetako garbiketa bat egitea da milaka ikasle kanporatu eta bidean uzteko. PPri ez dio inolaz ere axola hezkuntza publikoaren kalitatea. Argi eta garbi erakutsi du urte hauetan 7.000 milioi euro murriztuz urte hauetan, 32.000 irakasle

kaleratuz, banaketa-gelak eta erreformatu zituzten gelak itxiz, ikasleak sardina latzen moduan pilatuz edota 600.000 ikasleri baino gehiagori jangeletako eta liburu-etako bekak ukatuz. Axola dien gauza bakarra hezkuntza pribatuaren negozioa indartzea da, beraietako edo beren lagunetako askok irabazi handiak eskuratzen baitituzte hortik. Azken batean, beren seme-alabek inoiz ez dute arazorik edukiko akademia pribatu-etara joateko edota zailtasunen bat badute arreta posible guztiak jasotzeko, baita udan ingele-

sa ikastera Ingalaterrara bidaiatzeko ere. Gazteen gehiengoak bizi dugunetik errealitate oso ezberdina.

PP eta PNV hezkuntza publikoa suntsitzeko aliatuak

Beren arrazoitzeko modua hauxe da: askoz hobe diru publikoa bankuak salbatzeko bideratzea langile auzoetako gazteen hezkuntzara baino. Azken finean, errebalidekin egiten duten apustua titulua akademiko bat baino askoz urrunago doa. Oinarrian PPK zein eredu sozial defendatzen duen dago: pribilegiatu gutxi batzuk gehiengoaren esplotazioaren kontura aberats egiten diren eredia alegia, eta PNVEk guztiz bat egiten duena. Urkulluren gobernuak LOMCEaren eta murrizketen oposizioan itxurakerietan erabili duen erretorika guztiz kontraesanean dago errealitatean bere praktikarekin; murrizketak, dirua pribatu-kotzertatuari oparitzea publikoaren kontura, irakasleak kale-ratzea eta LOMCEa aplikatzea, LAB sindikatuak salatu duen bezala. Kristina Uriartek berak kurtso honen hasierako ekitaldian alfonbra azpian gorde nahi izan zuen zikinkeria, esanez ez zegoela argi ikasturte honetan Euskadin errebalidak egongo ziren ala ez, garrantzia kenduz gure eskubideen aurka doan eraso basati honi.

Agerian dago PNVren eta Alderdi Popularraren helburua berbera dela: prekarietatezko eta esplotaziozko etorkizun bat prestatzea familia xumeentzat, institutu eta eskola publikoetan ikasten dugunontzat. Horregatik lapurtu nahi dute ikasteko eskubidea, informaziorik gabe eta ahalik eta azkarren jaurti gaitzaten lan merkatu prekarizatu batetara, neurririk gabe, gu izan gaitezen, azken batean, geure burua konbentzituko dugunak ez ditugula baldintza hobeak merezi, ez baitago beste ezertarako ikasketarik.

Ez da “selektibitate berria”, errebalida frankista zaharrak baizik

Rajoyen jarduneko gobernuak temati ekiten dio behin eta berriz errebalidekin indarrean sartuko den sistema praktikoki selektibitatearen berdina izango dela. A ze gezur potoloa! Errebalidek selektibitatea hi-

rukoiztea dakarte eta ondorio askoz larriagoekin gainera:

- Lehen proba bat DBH 4an, gainditu ezean, Batxilergora joatea ukatuko duena, eta are larriagoa oraindik, ikasleari DBHko titulua ukatuko diona, lan merkatura titulaziorik gabe aterako delarik.

- Bigarren selektibitate bat 2. Batxilergoa amaitzean, gainditzen ez duena batxilergoko titulurik gabe utziko duena, bi ikasturteak kurtzatu ez balira bezala, nahiz eta bi urtetako ikasgai guztiak gaindituak eduki.


- Azkenik, irekita uzten da hirugarren selektibitate baterako aukera, ikasi nahi dugun unibertsitatearen kontura.

Hezkuntza komunitate guztiaren grebaren alde: denok kalera urriaren 26an

Azken urteotan mobilizazio mordoa egon da hezkuntza komunitate guztiaren aldetik eta orokorrean gizartetik LOMCEren aurka.

Gazteriaren artean 22 greba orokor izan dira azken lau urteotan Ikasle Sindikatuak deitu dituenak eta masiboki babestua izan direnak LOMCEaren eta murrizketen aurka. Presio soziala hain indartsua izan zen, ezen Alderdi Popularrak izozgailuan sartu behar izan zuela hezkuntza kontrarreforma eta ezin izan zuela hasi aplikatzen 2013an, bere nahiek zioten bezala. Kaleetara itzuli behar dugu!

Ikasle Sindikatutik iragartzen dugu ez dugula besterik gabe pasatzen utziko eraso hau, eta horregatik dei egiten diegu Ikasle Abertzaleetako ki-deei eta irakasle eta gurasoen erakunde-eei proposatzeko denak batera irte-tera hezkuntza komunitatearen greba orokor handi batean datorren urriaren 26an, argi utziz horrela ikasturtearen lehen egunetik ez dugula frankismoko hezkuntza leizeetara itzultzea onartzen.



Euskal Herria Sozialista aldizkariaren adierazpena

Antolatu zaitez

EZKER IRAULTZAILEAn!

Kapitalismoaren, zapalkuntza nazionalaren, murrizketen eta gure eskubideen errepresioaren aurka

Gizateria irtenbiderik gabeko bidegurutze batera bultzatzen ari dira. Gerra inperialistek eragindako suntsiketa eta heriotza, Europara iritsi eta kontzentrazio esparruetan pilatzen dituzten milioika errefuxiatuaren aurkako errepresioa, gure eskubide demokratikoen aurkako erasoak, zapalkuntza nazionala edo ingurumenaren hondamena... adibide batzuk besterik ez dira. Honek guztiak erakusten du munduan zabaltzen ari den basakeria, eta hori guztia aberastasuna, teknologiak edo baliabide materialak soberan daudenean biztanleriaren gehiengoaren bizitza duina bermatzeko.

Errealitate honek kolpatzen gaituen bitartean, kapitalismoaren logika onartzen duten gobernuek, hauek eskuinekoak izan edo "sozialdemokrata" deitu, aurrekaririk gabeko murrizketa sozialen politika basatiak, langabezia kronikoa, prekarietatea eta desberdintasuna inposatzen dizkigute. "Demokraziaz" hitz egiten digute, baina luxu handiaren murgilduta dabilen pribilegiatuen gutxiengo hori da erabakiak hartzen dituenak. Demokrazia deitzen diote, baina errealitatean kapital finantzarioaren diktaduraren menpe bizi gara.

Hala ere, kapitalismoaren krisiak beste aurpegi bat ere badu: milioika

langile eta gazteren kontzientziak kolpatu ditu, hamarkadetan ezezagunak izan diren errebolta sozial handi bat, greba orokorrak eta masa manifestazioak bultzatuz eta herrialde askotan ezkerrean zoko jorak eraginez.

Langile klaseak eta gazteriak osatzen dugu indarrik boteretsuena, eta gure baimenik gabe ezinezkoa da gizarte honetan ezerk funtzionatzea. Baina indar horrek antolaketak bat eta programa iraultzaile bat behar ditu. Kapitalismoa ezin da eraldatu borondate onaren bitartez bakarrik. Errealitate gordinak erakusten du burgesia eta monopolio handiak ez daudela prest kontzesio txikiak ere egiteko irabaziak pilatzeko beren helburuan, hori milioika pertsonen sufrimenduaren kontura izan arren. Zentzu honetan, Greziako esperientzia erakusgarria da: herri greziarrak Syriza gobernuan jarri zuen, masiboki eman zuen bozka Troikaren inposizioaren aurka erreferendum batean, baina Tsiprasek bizkarra eman zion indar guzti horri eta amore eman zuen botere ekonomiko handien aurrean.

5. ORRIAN JARRAITZEN DU

EZKER



IRAULTZAILEA

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.